

 AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H	IL0089	Hirigintza arloko ziurtagiriak
---	---------------	---------------------------------------

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Herritarrek, finka, poligono edo sektore baterako aplikagarri den hirigintza arloko araubideari buruzko ziurtagiria eska dezakete, indarrean dagoen legediak ezartzen duen moduan.

Udalak, ziurtagiriari erantzutean ematen duen hirigintza arloko informazioan ondorengo baina ezin dezake adierazi: finka, higiezina, poligonoa, egikaritze unitatea, edo sektorea jasotzen duen lur-zoruaren sailkapena eta, hala denean, kalifikazioa; eta behin betiko onetsita dagoen eta udalerrian aplikagarri den Plan

Orokorrak edo Garapenerako planteamenduak ematen dizkion hirigintza arloko erabilerak, intentsitateak eta aprobetxamenduak, hala denean, Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Hirigintza Arauetara edo indarrean dauden planteamendu edo/eta kudeaketa tresnara joz.

Hirigintza arloko kontsultarekin duen aldea, ziurtagirian fede emaile publikoak parte hartzen duela eta informazio horren egiazkotasunean eta zuzentasunean dagoen konfiantza lege ondoreetarako legezkotzat hartzen dela da.

NORK ESKA DEZAKE?

Edozein pertsona fisikok edo juridikok edo bere lege ordezkariak.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E007 Eskabide orri orokorra](#)

Hirigintza Ziurtagiriaren eskariak inolako zalantzarik gabe identifikatu beharko du finka, higiezina, poligonoa, egikaritze unitatea, edo sektorea, ez dadin zalantzarik sortu haren kokaguneari eta kasuan ematen diren gainerako egitatezko abaguneei buruz. Kontsultaren xede den finkaren kokalekuari buruzko 1:2.000 eskalako planoaren aurkeztu beharko da.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Ordutegia: 7:30 - 15:00

Posta arrunta:

- Posta ziurtatua
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO

ZENBAT KOSTATZEN DA?

001 - Administrazio dokumentuak luzatzeagatik Tasak	
Hirigintza edo ingurumen arloko edukia duten egiaztagiriak ematea	103,00 Euro / unidad
Hirigintza edo ingurumen arloko informazio edota eskariak	77,25 Euro / unidad
Zaratak neurtzeari buruzko txostena (ikuskatzen joateagatik)	309,00 Euro
Kaleen izenei zein higiezin zenbakiei buruzko egiaztagiriak ematea	10,30 Euro / unidad
Katastroko egiaztagiriak ematea	6,18 Euro / unidad
Espedienteetan dauden datuen ziurtagiriak ematea, baldin eta txosten teknikorik eskatzen ez badute	10,30 Euro

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Aste 1

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 2 hilabete

Isiltasun-administratiboaren izaera: Aurkakoa

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hiri Zaharberritzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena](#) 5d Art.
- [2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa](#) 9 Art.
- [Zerbitzuak eman edota udal jarduerak burutzeagatik sortutako prezio publikoak arautzen dituen ordenantza](#). epig. p
- [Plangintzako Udal Arau Subsidiarioak](#) 4.1.4 Art.

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

Eskabidearen sarrera, HAZak egingo du.

Tasaren kitapena:

Dagokion sailera bidali: Hirigintza

- Espedientea teknikaren eta administrazioaren ikuspegitik
- aztertu.

Instantzia teknikoari zuzentzeko eskatu

Txosten teknikoa

Ziurtagiria

Jakinarazpena

NORK ONARTU BEHAR DU?

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Arlo Teknikoa - Hiri-plangintza

OHARRAK

Ziurtagiriaren egiaztapenerako balioa, izan ditzaketen akats materialen edo egitatezkoen ondorengo zuzenketaren kalterik gabe ulertuko da, eta ezin izango ditu inoiz aldatu une bakoitzean aplikagarri den lege eta hirigintza arloko antolamenduaren arabera finkaren gainean egon daitezkeen eskubideak eta betebeharrak.